



TXIRRITXOLA

15. ZENBAKIA 1995.EKO ABENDUA. BAKIOKO EUSKERA BATZORDEA



Eskutartean daukazu **TXIRRITXOLA** honetan, txakolinari emon gura izan dautsogu garrantzia; den sasoiagatik eta azken urteetan gora doalako oster bere. Berari buruz berba egitera joan gara txakolingile batzuegana, ez doguz baztertu gura izan Mario Abio, Uriarte, Sumusu edo Aritzetakoak etabar... baina leku nahikorik ezean, batzuk besterik ezin izan doguz elkarrizketatu. Horra hor jasotakoa...

AURKIBIDEA

- 2.- Basigoko txakolina. Gorrondona.
- 3.- Ezkontzea Euskal Herrian.
- 4.- Itxas Alde berriro ekinean.
- 5.- Euskararen Jaia.
- 6-7.- 1.994.eko Idaz Lehiaketa.
- 8.- Lehiaketa mundiala. Denbora pasak.

GALDETEGIA:

- Zelan etorri da aurtengo uzta?
- Zein duzu gurago, zuria, baltza ala ojo gallo?
- Kaleko jendeak badaki txakolina bereizten?
- Bakiokoa ez den txakolin baten izena.
- Eman lezake txakolinak bizitzeko beste?
- Azken 10 urteotan igarri edo eragin dozue aldaketarik? Prozeduran...

BASIGOKO TXAKOLINA

1) UZTA: Ona. Ihaz baino osasuntsuago, gaixo barik eta kalitatezkoa, azukre graduazio on batekin (medida batzuk 12^otik ere pasa dira). Kantidadia ihazko beste hainbeste.

2) ZURIA, BALTZA...: Gure etxean gehien edaten dena baltza da, baino saldu orduen "ojo de gallo" eta zuriak estimaziño geiau dekiet¹.

3) TXAKOLINA BEREIZTEN: Danatarik dau². Adibidez: Giputsek ez dakie ezagutzen baltza baina probetan dutenean ikaratuta lotuten dire berak duen usaiarekin. Gero beste batzuk datoz gorria, baltza edo zuria bakarrik gure deurietak³.



4) TXAKOLIN ON BAT: Bakiotik kanpora txakolin onak ere badagoz, bai Txorierrin, bai Mungialdean eta Enkarterrietan.

5) BIZITZEKO BESTE EMAN, EZ...: Ez, Bakion behintzet bakoitxak dekuzen⁴ terrenoak ezin leike bizimodua eroan aurrera eurokaz⁵ bakarrik.

6) ALDAKETAK: Hamar urte hauetan txakolinek igokera aundie euki⁶ deu. Aldarri⁷ batetik elkarre bat egin du⁸ txakolineru guztien artien eta bere bai *denominación de origen* "Bizkaiko Txakolina" lortu du⁹, eta guzti hauek gure txakolinak aurrerakada aundia euki du¹⁰.

Txakolina egiteko orduen betiko moduen egiten du, baina aldaketa txiki batzuk ere egin duz¹¹, adibidez orain *acero inoxidable*ko tankiek erabiltzen doguz barriken orde, zuria eta "ojo de gallo" gaz. Baltza beti sartzen du barriketan.

- 1.- Dekie: Daukee, Daukate. 2.- Dau: Dago. 3.- Deurietak: Dabenak, Dutenak.
4.- Dekuzen: Daukaguzen, Dauzkagun. 5.- Eurokaz: Eurekin. 6.- Euki deu: Eduki du, Izan du. 7.- Aldarri: Alde. 8.- Egin du: Egin dugu. 9.- Lortu du: Lortu dugu.
10.- Txakolinak... euki du: Eduki du, Izan du. 11.- Duz: Doguz, Ditugu.

GORRONDONA

Itziar Intxausti eta Rafa Lopez de Arbina Gorrondonako txakolina lantzen dabilta egun¹. Mendikoi entpresaren² bidez etorri ziren Bakiora, txakolinaren ekoizketa (produkzioa) bateratu eta barritzeko asmoz³, honetarako txakolingileegaz berba egin eben, baina azkenik Udaletxeak bultzatuta, Artaxukoa soloetan hasi ziren beharrean.

Batera, Diputazioak "Bizkaiko Txakolina" izenpeko ustiaketak⁴ neurtu⁵ eta "erregulatzera" zihoalez, Gorrondo alokatu⁶ eben eta "Gorrondona" izenpean saltzen dabe ekoiztutako⁷ txako-lin guztia... Eta honako hau da Rafak esan deuskuna kafe baten aurrean...

1) UZTA: Oso ona izan da, eguraldi ezin hobea eduki dugulako aurton.

2) ZURIA, BALTZA...: Berdin deust bata zein bestea, ona izanez gero.

3) TXAKOLINA BEREIZTEN: Oro har ezetz uste dut; txakolinaren ezagutza eragin behar da. Normalean baserritarak txakolin garratzagoa dauko gustoko, eta kaletarrek aldiz, lehunagoa⁸ gura izaten du.

4) TXAKOLIN ON BAT: Txomin Etxaniz; Getariakoa.

5) BIZITZEKO BESTE EMAN, EZ...: Bai; 4 edo 5 Ha. edukiz gero, familia batek, profesionalki lan eginda, aurrera egiteko modua edukiko leuke. Hau Getarian ikusi ahal izan dogu. Gu geu 9Ha. hartzera goaz, aurrerago gehiago zabaltzeko asmoz, hori bai, "Denominaziokoan"⁹ baimenaren arabera.

6) ALDAKETAK: Osaun arloari¹⁰ dagozkio gehienak. Barrikuntza nagusia altzairuzko¹¹ kupelak sartzea izan da, dakarren garbitasunagaitik; egurrezkoek, ondo garbituz gero ez dabe arazorik¹² emoten, baino arrisku gehiago daukeez (legami¹³ kaltegarriak, gaisotasunak...) altzairuzko kupelakaz kalitate berbera eta garbitasun handiagoa lortzen dogu.

Bestalde, txakolina botilatzerakoan ez da komeni haizeagaz kontakturik har deien, et horretara datoz sistema barriak.

Mahatsetan "folle-blanch" batetik eta Hondarribi zuri eta baltza erabiltzen doguz, azken hau kalitate handiagokoa da, gaisotasunei erresistentzia handiagokoa eta gradu altuagokoa.

- 1.- "Egun": Gaur egun, ... 2.- Entpresa: Empresa. 3.- Asmoz: Gogoz. 4.- Uztiaketak: Esplotazioak. 5.- Neurtu: Medidea hartu. 6.- Alokatu: Alkilatu. 7.- Ekoiztutako: Produzitutako. 8.- Lehunagoa: "Suabeagoa". 9.- Arabera: *Según*.
10.- Arloari: "Aldeari", "Aspektuari". 11.- Altzairuzko: *De acero*. 12.- Arazorik: Problemarik. 13.- Legami: *Levadura*.

EZKONTZA EUSKAL HERRIAN

Orain dala aste batzuk ohiezlako ezkontzea ikusi ahal izan dogu Bakion. Antxina baten gure aurretikoek egiten eben erara, danon arridurarako, Bakioko kale nagusian zehar, idibuztarri, burdi trikitilari ta guzti ibili izan dira, jaietan ohi dan lez, ezkongaiok. Han bai, bakiotar askoren jakinmina eta ikusgurea!

Baina hau holan izan bada be, zelan egiten ebezan, bada, gure arbasoek ezkontzearen inguruan eginbeharreko guztiak? Tokian tokiko ekanduak dirala be, orokorrean hiru zati nagusitan azaldu leitekez:



Ezkongaietan:

**"Garia saltzen nengoala
Gernikako kaleetan,
andra gazte bat etorri jatan
garia zegan neukean.**

**Besteentzako hamar t'erdian,
zuretzako ezkontzordean.
Ezkontzordean badaukazu,
erdu ba ezkonbidean".**

Ezkontzea gazte guztien helburua zan, mutilzahar edo neskazahar lotzea lotsagarritzat hartzen ebelako edo. Sasoi batera heldukeran, bada, zelan edo halan ezkongai aurkitu behar izaten eben; mutilak, batez be, ahaleginotan ibiltzen zirala.

Honetarako jokabide berezi eta ezbar-din asko erabiltzen ebezan. Neska-mutil lagun gehienek domeketako dantzaldietan ezagutzen eben alkar. Han hasten ebezan euren lehenengo alkarrizketa eta hartuemonak.

Beste batzuetan, solo-beharrak edo etxeko beharrak egiterakoan. Baserritarrek solo-beharretan alkarrerik laguntzen eutsola gogoratu beharra dogu. Baina gazteak ez ziran beharrerako bakarrik joaten. Askoren bihotzetan euren helburua eben eta neskak eukezan baserrietara pozarren joaten ziran mutilok.

Artaburuak zuritzeko sasoiari be ardura bardina izaten eben. Artaburu zuriketa basetxeetan ilundearen hasi eta gaueko beluko orduak artean beharrean ibiltzen ziran. Ostean, etxekoandreak aparia opa izaten eutsen. Ordu honeek gazteen hartuemonetarako aukerakoan ziran.

Inoiz, mutilek, gauez, nesken leihotara joateko ohiturea eukiten eben. Domeka arrastiko dantzaldia ilundearen, zazpiretan inguru, amaitu eta etxera bihurtzen ziran danak. Gurasoak lo egozala uste izaten ebenean, mutilek etxetik urten eta han joiazan neskatoen leihopeetara. Lotokiak goialdeetan baegozan, eskuko mailaldiak erabiltzen ebezan bertaraino heltzeko.

Jokabide honeetarako, baina, ausarta izan behar izan. Bildurteiek ez eukin zereginik eta. Osterantzean, beste bide batzuk hartu behar izaten ebezan. Esate baterako, txarria hilkeran, buztantzak eta odolosteak neskeari bialdu, hau berau ezkongaitzarako eskabidea ei zala. Neskeak onartu ezkerro, baietzaren ezaugarria ei zan.

Beste askotan, osterara, gurasoek seme-alaben ezkontzan ardura itzela izaten eben. Gurasoak etxerako seme-alaben arteko bat aukeratu eta besteak ezkontze ahaleginetan ibiltzen ziran. Honeetariko asko ta asko eleizako egiten ziran. Baina, batez be, etxeko oinordekoaren ezkontzea eratu behar izaten eben. Ezkontzarako eukiak edo ondasunak be gogotan hartzen ebezan. Semearen edo alabearen ezkontza osteko diru-egoerari asko begiratzen eutsoen eta. Hori zala eta, gurasoak, amak batez be, ezkontza tratuetan ibiltzen ziran. Sarritan seme-alabek eurek ezer jakin barik.

Bide guzti honeek erabilia oraindik inor ezkondu barik lotzen bazan, mutilzahar edo neskazahar geratzen zan. Honeetariko askok ezkongelotzeko bildurrak santutegiren batera joaten eben. Sarrienik, neskek "Madelenetara", mutilek, osterara, "San Antonioetara". Han euren eskariak eta baita opariak eta otoitzak be jagokan santuari egiten eutsoezan: baltzarana gura ebanak orrazi baltza izten eutson bitartean, ulegorria gura ebanak orrazi zuria.

Baegozan batzuk, baina, mutilzaharretan edo neskazaharretan oraindik inor urte batzuk gahiago emon guran, santutegiari beharrezkoa zan baino inguruko ibilbide luzeagoa egiten ebenak. Atzerapena eskatzeko asmotan, jakina! Hoba ez!

(Hurrengo **TXIRBITXOLAN** jarraipena)

BERBALAPIKOA

oiezlako = askotan jazoten ez dana; ezohiko. **aukerakoan** = egokienak; aproposenak. **mailaldiak** = eskilarak.

eleizako = eleizgizon edo eleizandra. **oinordeko** = gurasoengandik etxaldea hartzen eban semea edo alabea; etxagun.

eukiak = ondasunak; aberastasunak. **gogotan hartu** = kontutan hartu. **ezkongelotze** = ezkondu barik dagoana, andra zein gizon.

baltzarana = ule baltzak dauzkana.

HERRI TALDEAK

"ITXAS-ALDE" BARRIRO EKINEAN

Udea joan jaku eta udagoiena heldu. Udagoienagaz batera beste dantza-urte bat. Honegaz, ba, daborduko hogeitaka... laster laster ia zidarrezkoak be!

Jakingo edo entzungo zenduen lez, hasi gara barriro hasi be dantzetan. Dantza-urte barriari (1.995-1.996) hasikerea emon deusogu, bai!, eta **TXIRBITXOLA**k eskeintzen deuskun toki honetatik dei beroa egin gura deusuegu:

Ume, gazte, nagusi... andrazko zein gizonezko... entzun, entzun ondo...

ERDUZE GUGAZ DANTZAN!

ERDUZEEEE... !

-Nagusi esan dozu? Kontxo, nagusiak be?

Bai. Zergatik ez? Badagoz euskal dantzetan errez errez ikasi leitekezan dantzak eta.

Jotak eta arin-arinak ikasteko gogorik? ...Bai? ...Ba, ERDUZE!

Musika tresnarik joten dakizula? Soinu, txistu, ...tronpeta zein flautea jotzen dakizula? Ba, gure ateari zabalik daukazuz. ERDU!


Badakizue, zapatuetan ETXE-PINTON gagotzuez.

Datorren urterako dantza barriak ikasi ta dakiguzanak onduteaz gain, Italiara joateko asmorik badaukagu eta udarako azterriko dantza talderen bat ekarri gura genuke be.

Baina saioak egiteko erabilten dogun ETXE-PINTO noiz artean erabili ahal izango dogun oraindikarren ez dakigu. Beste leku egoki baten bila gabilz. Ez da erreza, baina. Arazo honek nahiko burukomin emoten deusku, baina danon uste eta gogo onaz konponduko doguna ziur gagoz.

Halan izan beite!

ITXAS-ALDE
Euskal Kultura Taldea



EUSKERAREN JAIA

Eguzkiak gogoz lagundu zigun Euskeraren egunean.


Dantzari, txistulari eta herriko Eskolako umeek biziki adierazi zuten barru barrutik maite zutela gure hizkuntza eta horrelaxe frogatu zuten Bakioko kaleetan zehar.

Bazkariak poliki asetu zituen gure sabelak eta patxara ederrean entzun genituen ondoren txalaparta, bertsolari, abeslari eta antzerkilariak.

Trikitrixak aukera eman zuen dantza mordoa egiteko.

Baina ez ahaztu!
EUSKERAK EGUN BAT BAINO
GEHIAGO MEREZI DU!

URTE OSOAN EUSKERAZI!



1.994.eko IDAZ LEHIAKETA

"Olentzero eta Adarjotzaileak"

Egilea: Gaizka Ugalde Begoña
(Irabazlea 7tik - 10era)

Bazen behin, herri txiki eta zorionsu bat. Bertan Xabi bere lagunak hauen senideak bizi ziren.

Goizero Xabi, ohetik jeiki, jantzi, auzpegia garbitu eta gozaltzen zuen.

Eskola kilometro batera zegoen eta bere lagunekin batera joaten zen. Astelehen goiz eguzkitsu batean Xabi bere lagunekin eskolako bidean zihoala, bere lagunek txantxa edo adarjotze bihurtu bat egin zioten. Honela gertatu zen:

-«Auzten Olentzerok opazi pila ekartziko dizkit. (esan zuen lagunetaziko batek).

-Nizi eze. (esan zuen Xabik).

-Auzten egin ditudan gaiztakeri guztiekin, asetzeko hain opazi izango ditut. (esan zuen beste lagun batek)

-Zer diozu? ondo portatu behar da Olentzerok opazi pila ekartzeko. (esan zuen Xabik).

-Hori behar zen. Auzten aldizkaziak esan duenez oso txarto portatu behar da, Olentzerok opazi pila ekartzeko. (esan zuen lagunetaziko batek).

-Seguru zaude? (esan zuen Xabik).

-Bai ba. Nete hasieran nize gurasoak hortaz hitz egin zidaten. Ez naiz egongo zinez! (esan zuen beste lagun batek).»

Horrela eskolara iritsi ziren. Xabik ezin izan zuen arreta jarri andereñoak esaten zuenari. Goiz osoa igaro zen eta Xabi etxera heldu zen. Bere logelan sartu eta pentsatzen ihardun zuen bazkal ordurarte. Egun horietan Xabi aldatzen hasi zen: ez zituen lanak egiten, ez zion amari kasuzik egiten, ezropak zikintzen zituen, dirua lapurtzen zuen... horrela Olentzero eguneraino, Abenduak 24an. Xabik pila opazi itxoiten zituen. Gau berberean esna gelditu zen olentzerori itxoiten. Olentzero heldu zen eta... Xabi oartu zen aita-amen zokoetan opaziak utzi zituela ete bere zokoan, zergatik bere zokoan opazirik ez zuen utzi galdetu zion Olentzerori, Olentzero arreituta atzerantz salto txiki bat eman zuen eta hau esan zion:

-«Nola zaude esna? (esan zuen Olentzerok).

-Baaa.. (esan zuen Xabik).

-Esan didatenez oso gaizki portatu zara eta horren ondorioz ez dizut ezer ekarri. (esan zuen Olentzerok).

-Nize legunek esan didate oso gaizki portatu behar naizela zuk opazi pila ekartzeko. Eta horixe egin dut!. (esan zuen Xabik).

-Ba gezurra esan dizute mutiko. (esan zuen Olentzerok).

Orduan Xabi negar zotinka hasi zen.

-Ez hasi negarrez. Gezurra esan dizutenei eskarmentu on bat emango diegu eta. (esan zuen Olentzerok).»

Horrela Xabi eta Olentzerok pentsa eta pentsa hauxe ezabaki zuten: Xabiri opazi pila ekartzea eta bere lagunei ikatza. Horren ondorioz orain txarto portatzen dizenei ikatza ekartzen die Olentzerok.

«Ondo portatu eta horrela Olentzerok ez dizue ikatzik ekartziko.»




1.994.eko IDAZ LEHIAKETA

"Nire amarentzat eskutitza"

**Egilea: Nagore Elgezabal Ugalde
(Irabazlea 15tik - 18ra)**

Nik banekien gau horrek izan behar zuela. Zuk ez zenekien ni han nengoenik, niretzat esperientzia luze eta zoragarri hasten zela zure barruan has-teak eta gainera jakinda zuk onartzen ninduzula.

Lehenengo hilabetea niretzako zoragarria izan zen. Zure bihotza sentitzen nuen eta nola nire gorputzak itxura hartzen zuen gutxika ikusten nuen. Zuk oraindik ez zenekien ni han nengoenik, baina laster jakingo zenuen.



Hirugarren hilabetea izan zen, bapatean zure eskuaren berotasuna eta zure laztan goxoak sentitu nituenean. Bazenekien!

Ez dakizu zenbat nahi nuen zuri garraxika esan "bai ama, hemen nago". Baina ez zenidan entzun. Orduan, nola egin? Nola esan han nengoela? Ostiko txiki bat emanda zurekin komunikatu nintzen. Zure sabelean zerbait mugitzen zela nabaritu zenuen. Egun hartatik beti hitz egiten nizun nire hizkuntza partikularrekin eta zuk erantzun egiten zenidan. Zure ahotsagaitik sentitzen nuen maite ninduzula. Ni ia ia mutiltxo bat nintzen.

Gau baten izan zen, ama maitea; berak oraindik ez zekien? Zergaitik ez zenion esan? entzun nuenean negar egiten zeundela. Zergaitik? Negarraren zotinkak sentitu nituen eta konturatu nintzen zerbaiten hasiera zela gero amaitu beharko zuenak.

Garai tristea eta bakartia izan zen, ez ninduzun maite, ama. Zer esan zizun gizontzar harek aldatzeko eritziz?

Udazkeneko egun baten gertatu zen. Nola dakidan? Loreen usain goxoak zure azaletik sartzen zen, leku hartara ibiltzen zindoazen bitartean... ospitalea? Inoiz ez dut jakingo. Zuri eusten nizun indarrez. Ez zenituen esku batzuk sentitzen? Ez nizun utzi nahi. Hainbeste maitatzen zintudan! Gogo handia nuen galdetzeko mila aldiz zergaitik, zergaitik?

Zure bihotzak beste era batera zituen taupadak, odola zure zainetetaik oso arin zilhoan, musu eman nahi nizun, agur esan azken ostikadatxoaz baina ezin izan nuen. Ohartzen hasi nintzen nola urruntzen ninduten zuregandik, ezerk ez gintuela elkartzen. Nire begiak odolez bete ziren eta ezin nuen ikusi zure aurpegia, negar ahul batez agur esan nizun betirako.

Orain hemendik goitik idazten dizut, zuk bialdu zenidan lekutik. Ez dizut arrenkurarik, ama; badakit maite ninduzula eta bakarrik gizontzar harek eritziz aldaera egin zizula.

Agur ama, egunen baten ezagutzeko aukera edukiko duzu.

Inoiz ez zaitut ahaztuko. Asko maite zaitut.

Zure semea.


LEHIAKETA MUNDIALA

«TXAKOLIÑA»

- 1.- Zer da txakoliña?
- 2.- Noiz batzen da mahatsa?
- 3.- Egia da Bakioko mahatsa mingotsagoa edo bereziagoa dela? Zergatik?
- 4.- Zelan deitzen da mahatsetatik irtendako zukua fermentatzen den tokia?
- 5.- Zelan deitzen da mahats mordoak histutzen diren tokia?
- 6.- Zelan irtetzen da «ojo de gallo» izeneko txakoliña?
- 7.- Edozeinek zapal dezake mahatsa?
- 8.- Mahats-parra, non egon behar da, eguzki asko dagoen tokian, eguzki gutxiago dagoen tokian edo gerizpetan?
- 9.- Zer da demostie?
- 10.- Amai ezazu abesti hau:

«Txakoliña edan

.....
.....
.....»




HIZKI SALDA

BILA ITZAZU BIZKAIKO 10 HERRI

J	A	D	F	H	O	J	L	N	O	D
F	B	G	O	R	L	I	Z	Q	S	U
G	U	A	E	L	K	A	K	X	U	R
O	P	T	R	O	T	Ñ	J	A	I	A
B	X	I	O	R	G	D	K	I	B	N
L	T	K	H	O	A	A	R	Z	B	G
I	Z	A	O	Ñ	N	E	T	S	O	
B	E	R	M	E	O	M	G	N	U	N
L	E	T	M	R	A	I	R	E	Z	A
Z	U	T	R	P	Ñ	M	K	L	L	I
M	U	N	G	I	A	G	E	P	B	U

GURUTZEGRAMA

HITZAK BERE TOKIAN IPINI



- 3 LETRA: Ero. Gar. Eme. Ate.
 4 LETRA: Izua. Kito. Gozo.
 5 LETRA: Etxea. Oilar. Gurea. Hitzia.
 6 LETRA: Argala. Etsaia. Txoria.
 7 LETRA: Zilarra. Sudurra.
 8 LETRA: Ezjakina. Lorategi. Ostirala. Razional.
 9 LETRA: Okindegia.
 10 LETRA: Garbitasun.